

# AMA EUSKERARI GUTUN IREKIA

MIKEL UGALDE

Agur Ama:

Aurtengo Maddalen jaiotan gogoan zaitut et horregatik idazten dizut. Ihauteria jaietan gurekin izan zintugun eta herriko festaburuotan zurekin gaituzu. Agerraldi bikaina, hunkigarria, ahaztezina izan zen zurea gure herriko kaleetan, udaberriaren atarian, gure gizarte etsitu hau bizi berri batez ernaldutako nahi zenigularik. Poztu gintuen benetan ihauterietan zu gure artean ikusteak, alaitzen gaitu egunotan zureganako oroitzenak.

Zure etorrera harrigarria izan zen guretzat. Galzorian dagoen hizkuntza zahar bezala ikusi izan zaitugu, gramatika gai aspergarri bezala aztertu izan zaituzte, asignatura soil bezala mugatu izan zaitue: mugatua eta mugagabea, mintzagai eta galdegaia, sujetoa eta aditza... era gogaikarri eta aspergarrian.

Zu, ordea, Ama Euskera zaitugu. Ez zara gramatika, ez asinatura, ez ortografia erregela hankerra. Zu, batez ere, euskaldunon Ama zaitugu. Etxeko ama seme-alabekin jaiegunitan alaitzen den bezala, zu ere alai eta gozo azaldu zinen gure artera udaberriaren atarian ihauteriak ospatzera. Ez zenuen, damurik, Berauna igotzerik izan, eguraldi euritsuak ez zizun batere onik egingo. Zu gabe umezurtz aurkitzen ginen jaialdi hartan.

Biharamanean, ordea, klarisetara norbaitek arraultzak eman zituelako edo, egunak argitu zuen eta hodei konkorrak uxatu, zu zeu, prestu eta panpoxa gure artean egon zintezan. Hura zen hura poza! Oroitzen al zara? Ikastolako ikasleak, zer esanik ez irakasleak, zure alboan egon nahi zuten. Zangolariak irmo jarri ziren zure ondoan zure esanetara baileuden. Hasi Santa Klara kaletik eta Errenteriako kaleak zeharkatuz, mantso mantso, arratsalde hartaz gehiago goza nahi izango bazenu bezala, Musika Plazara iritsi zinen. Ibilaldi gogoangarria benetan.

Zurekin Ama Euskera, zurekin zeuden dantzariak, danborrariak, fanfarriak, ibiltariak, agintariak, zure zain musikariak eta herritar guztiak.

Ondoren zure omenez ospatu zen jaialdiak biziki poztu zinduela esango nuke. Poxpolin aurkezlearen eskutik han azaldu zitzaizun bandolaria, ozenki eta garden, Ama Euskeraren presentzia herri osora aldarrikatuz. Gogoan al dituzu gure koplan-trikitilariak? eta han entzun zen irrintzi eraginokorraren

oihartzuna? eta antzeslariak azaldutakoa, zure aldeko jarrera? Poztu zindezkeen poztu, gazteek ere gogoan zaituztela argi ikusteko parada izan bait zenuen. Bai, bai, guzti horiek gogoan dituzu, baita zangolarien arteko tirabira, dantzarien saioak, danborrariaren tarrapatatanak, globoen zeruratzea, gau iluneko argi itxaropentsuaren errainua. Guzti hura bizitzeko hobe zen gerora kontaktetan ibiltzeko baino.

Aurtengo ihauterian ospakizun hura lan eta ahalegin askoren emaitza izan zen, herri osoa zure altzoan bildua bait zenuen. Duela urte batzuk ikastolak kilometroak 84 ospatu zueneko hartan, herritar guztiak bildu ziren ikastolaren aldeko, eta euskararen aldeko, ekintza hartan. Koloreak eta pentsakerak alde batera utzi, eta herri osoak su eta gar ekin zion eginkizun hura burutzeari. Horren antzeko zerbaite gertatu da, Ama Euskera, oraingo honetan. Behin ere ez ditut irakasle, ikasle eta gurasoak, hain elkartuak lanen ikusi. Ilusio haundiz eta fede biziz egin dute lana hilabete luzeetan. Ikasleek ere ez dute aurtengo ihauteria nolana ahazturik utziko.

Oraingo honetan, Ama Euskera, beste zimikoa ere sumatzen nuen nire baitan. Ihauteriak arrotz ikusten nituen inguruan, herri tipitako batzuk izan ezik, gainontzekoak ez nituen behar bezain etxeko eta euskaldun ikusten, ihauterian eta euskararen arteko etsaigoren bat zegoela zirudien. Nire ueste gaiztoak oraingo honetan uxatu dituzu, udaberriaren atarian euskal arnasa itsatsi nahi izan zenigun.

Zure etorkizuna dela eta, hileta kanparik jotzen hasia dabilenik bada gure artean. Aurtengo jaietan ospatuak irauten duen arteino iraungo du, gure artean izango zaitugu, Ama Euskera.

Badakigu, jakin, egun soil batetan eginikoak jarraipena eskatzen duela, zurekin bizi beharrean garela, egun bakar batetako suak ez bait luke negu luzeko izotz jeltua berotuko. Gurekin zaitugu, eta gure artean behar zaitugu.

Maddalen jaiotan ez zaitugu, beharbada, Zentenario unean ikusiko, baina gogoan izango zaitugu. Beti ere Ama Euskera nahiago zaitugu jai alaietan ospakizun negartietan baino.

Agur, Ama Euskera, errenteriarrok, ihauterietan ibili ginenok, zurekin gauzakazu.